ARAUTEGIA:

1. Kasko babeslea proba guztian zehar jarrita eraman behar da; hau beteko ez balitz, probatik kanporatu daiteke.
2. Komenigarria da mugikorra eramatea.
3. Emandako zenbakia beti begi-bistan egon behar da bizikletaren aurrekaldean.
4. Antolatzaileek markatutako ibilbidea errespetatu behar da, nahiz eta honek aldaketak jasan aurretik edo proba bera ospatzen den bitartean.
5. Beharrezkoa izenez gero, antolatzaileek ibilbidea eta kilometrajea aldatzeko eskubidea bere esku dute.
6. Segurtasun Taldearen aholku eta oharrak aintzat hartu beharko dira. Talde hau antolatzaileek, CRUZ ROJA eta antolatzaileek izendatutako boluntarioek osatzen dute eta peto identifikagarria izango dute soinean.
7. Izalgo Gailurrak BTT ibilbidea Atxurbide mendian zehar ospatzen da, eta paraje hauetaz denak disfrutatzen jarrai dezagun, parte-hartzaile bakoitzari honetan lagundu dezan arren eskatzen diogu, dena ondo garbi utziz, ez paperik ez zaborrik lurrera botaz eta hondakinak horretarako jarritako lekuetan sartuz.
8. Segurtasun Taldeak probatik edozein parte-hartzaile atera dezake, osasun-zerbitzu edo antolatzaileen ustez ez badago jarraitzeko egoera onean edo probaren logistika edo lasterketa hasieran berri emango den eta aurreikusitako ordutegiak arriskuan jartzen baditu.
9. Borondatez edo derrigortuta proba uzten duen parte-hartzaileak, bere zenbakia antolatzaileei edo segurtasun taldeko kideari emango dio lagatzen duen momentuan. Bere erabakia izango da helmuga punturaino bere kontura jarraitzea baina ezingo du ibilbide berdinetik jarraitu, azken ibilgailu ofizialaren atzetik izan ez ezik. Ezin izango du inongo oztoporik jarri probaren igarotzeari eta antolatzaileek ez dute inongo erantzukizunik edukiko parte-hartzaile honengan.
10. Aseguru osagarriaz egindako inskripzioak istripu-aseguru bat barne du.
11. Idatziz eta proba bukatu ondoren gehienez 60 minutatara egindako erreklamazioak onartuko dira.
12. Parte-hartzaileek bere irudia eta probaren garapenarekin zerikusia duen informazio guztia antolatzaileei uzten diete hauen erabilerarako, kirol ekitalditako antolatzaile bezala egin ditzaketen argitalpen, promozio edo dibulgazio-ekintzetarako.
13. Behin izen-ematea eginda, ez da inola ere ordaindutakoa bueltatuko eta ezin izango zaio ezta beste pertsona bati utzi.
14. **SALBUESPEN ERANSKINA**: Proba honetan izen-ematean parte-hartzaileak arautegia onartzen du eta ondorengoa baieztatzen du:

• Aitortzen du ezagutzen duela "Izalgo Gailurrak BTT" ibilaldi bat dela eta lehiaketa baztertzen dela. Kronometratutako denbora datu informatibo moduan bakarrik izanda.
• Aitortzen du badakiela proba trafikora irekitako bide publikoetatik igarotzen dela.
• Onartzen ditu oinezkoen trafikoa, beste ibilgailu eta nekazaritza edozein motako ibilgailuei irekita dagoen proban parte-hartzeari datxekion arriskua dagoela.
• Bai nire segurtasunagatik bai gainontzeko parte-hartzaile eta bide publikoen erabiltzaileenagatik, Errepideko Segurtasun Legeko araudia betetzeko konpromi-soa hartzen dut.
• Idiazabal Kirol Elkartea edo/eta probaren antolakuntzari lotuta dagoen edozein pertsona fisiko edo juridikoa, gertatu daiteken edozein istripuaren edo ustekabeen ondorioz egon daitezken erantzukizunetaz salbuesten ditu, bai zirkulazio arrazoiak direla medio bai kirol istripuan.
• Lehen aipatutakoak salbuesten ditu ibilaldi zikloturista honetan parte hartzean, osasun arrazoiak direla eta, ondorioztatu daiteken edozein kaltegatik, personalki onartuz honelako proba batetan parte hartzeak suposatzen duen esfortzu fisioak osasunarentzat duen arrisku atxikia.
• Aitortzen du ezagutzen dituela honelako proba batean parte hartzeak dituen arriskuak

horren informazioa jaso duelako; honekin pozik dago eta beharrezkoak iruditutako galderak egiteko aukera izan du eta bere zalantza guztiak argituak izan dira.

• Ezagutzen du ziklismoa praktikatzeak atxikia duen kirol istripu bat jasateko arriskua dagoela, pertsonalki bere gain hartuz probako beste edozein parte-hartzaileari eragin diezaiokeen istripuaren erantzukizuna, antolatzaileak salbuetsiz istripu horien ondorioz egon daiteken edozein eratzunkizunez.

• Ezagutzen du probatik ararteko bati istripu bat eragiteko aukera dagoela, personalki bere gain hartuz honen erantzukizun osoa eta antolatzaileak salbuetsiz istripu horien ondorioz egon daiteken edozein eratzunkizunez.